

3.a	1. JARDUERA FITXA	ENERGIAK EZAGUTU	
------------	----------------------------------	-------------------------	---

<i>EZAGUTZAK :</i>	<i>MAILA :</i>	<i>GAITASUNAK :</i>
Energia iturrien jatorria eta eskuragarritasuna : fosilak – nuklearrak – berriztagarriak.	1 “badakit”	- Energia iturri familia nagusiak identifikatu.
Ingurumen-inpaktua : uraren, airearen eta zolaren andeatzea	2 “badakit aipatzen”	- Objektu teknikoa ibil arazteko erabiliko den energia iturriaren ezaugarri kutsakorren maila adierazi.
Multimedia dokumentuak : izaera eta ezaugarriak.	3 “badakit egiten”	- Multimedia dokumentu baten gidoia egin, dokumentua bera sortu argitaratze proiektu bat gauzatzeko hedabide ezberdinen bidez.

Aerosorgailuak haizeak emandako energia hartuko du eta honen bidez energia elektrikoa ekoiztuko du.

Haizearen energia zinetikoa erabiliko du : baina nolako energia iturria ote da ? Zein dira haren alde onak, alde txarrak ? Zein dira ustiapenari lotutako arazoak ? Zer kutsadura mota sortuko da halako energia iturria baliatzeagatik ?

Galdera frango beraz, berdin egin daitezkeenak bertze energia iturriei buruz : energia nuklearra, geotermia, eguzki energia...

Zure talde kideekin eginen duzun lan honen helburu orokorrak hauek dira :

Taldeka, energia iturri bati buruzko ikerketa lan bat egin eta lan hori ordenagailuz egindako diaporama baten bidez aurkeztu.

Eginbeharrak :

Talde bakoitzak hautatu duen energia iturriari buruzko bilduma egin beharko du. Lan hau osatzeko ikastegiko **dokumentazio zentroko** iturri ezberdinak erabiltzen ahalko dituzue (CD Rom, entziklopediak, aldizkariak,...), baita ere etxetik edo web guneetatik hartuko dituzuen informazioak. Lan hau egiterakoan hauxe zehaztu beharko dituzue :

- energia iturriaren definizioa
- nola erabil daitekeen **energia elektrikoa** sortzeko
- energia hori agortezina den ala ez (arazoa zehaztuz)
- energia iturriak naturaren gainean duen edo izan dezakeen eragina
- energia iturriaren ustiapenari doazkion arazoak
- geroari buruz arazorik izanen den ala ez halako energia iturria baliatzeagatik.

Zuen lana argitzeko, behar diren **eskemak, irudiak eta datu zehatzak** erabiliko dituzue.

Ekoizpena :

Bilduma ordenagailuz egindako **diaporama** baten bidez aurkeztuko duzue eta itzuliko duzuen lana behar den bezala osatua izan beharko da (talde kideen izenak, gela, titulua, aurkibidea, ...).

Bertzalde, lan hori egiterakoan orain arte ikasi duzuen guziaz informatikan erabiliko duzue : idazteko arauak, puntuazio arauak, irudien kalitatea, orrialdearen diseinu orokorra, irudien txertatzeko manera, diapositibak sortzeko manera.

Kasu ! Irudien eta informazioaren jatorria (web guneak, entziklopediak eta abar) azken diapositiban zehaztuko dituzue.

Lanaren ebaluaketa :

Zuen lana irizpide hauen arabera ebaluatua izanen da :

- informazioen zehaztapena, hiztegiaren egokitasuna
- ideien garapena eta aurkezpena
- euskararen erabilera
- dokumentuaren itxura orokorra : diseinua, arauen erabilera, aurkezpena

Baliabideak :

Diaporama hori **linean den Google Drive** aplikazioaren bidez burutuko duzue (*Google slides*) iturri fitxetako informazioak baliatuz edota interneten bidez telekargatutako tutorial edo laguntzak erabiliz.

Aztertuko dituzuen energia iturriak :

Taldea aztertuko duzuen energia iturria zerrenda honetatik hartuko duzue zozketa baten bidez :

URAREN ENERGIA (ibai - presa) - HAIZEAREN ENERGIA - EGUZKI ENERGIA -
ENERGIA NUKLEARRA - PETROLIOA - HARRIKATZA - GAS NATURALA -
GEOTERMIA - BIOMASA

Lan horien itzultzeko epea :